

SANTAMASAK

2014

ABENDUAN

22

ARRASATE

S. L. 13



EZ GAUDE DENOY

13 13 13 13

Juen da beste urtebete bai. Gertatu die gertatu biherrekuek eta gertatu biherko ez lirakenak. Munduek bueltan jarraitu dau beste urtebetez. Eta Arrasaten be denborak ez dau etenik ein Izen be, denborak ez dau inor barkatzen. Ez bi hankadunok, ez lau hankadunak, ez sustraixek sakon-sakon botata dauzkenak. Eta aurten, abenduen 22xen adibidez, hitzordue Arbolapetan eitten dauenak igarriko dau denborak aurrera ein dauela. Ehun urte pasa dittu gaztainonduek leku berien. Ehun urte pasa ein ditu Santamas egunai begire. Ikusi gaittu gure arbasuen ohiturak berreskuratzen, aldatzen eta eraldatzen eta, beste behin, oinarrietara itzultzen.

Aurten be, ahalegin hori eingo dou Arrasateko hainbat kultur taldek, Udalak eta Santamas Komisiñuek herritarrekin batera. Urteroko ezinbestekuei eutsi eta berritasunen bat eskaintzeko gogoz gatoz. Izengo da omenaldi umilen bat, kuadrillen arteko lehia sanoren bat, jarriko dotzau gure alie euskaldunon historia ezagutzeko balioko dauen itsasontzin baten erainkuntzai. Aitzaki gutxi etxerako.

Astindu ba armarixuek. Ein daigun hainbat urte atzera, aurrera ein ahal izeteko. Jentzi daigun kalie festaz, sagardo usainez eta txistorra zaporez. Beti be, gure onduen faltan dauzkounak goguen hartu eta dantza saio batzuk einda.

Ondo pasau
Santamasetan!!

Arrasateko
**HAINBAT
KULTUR TALDE**
Arrasateko **UDALA**
**SANTAMAS
KOMISIÑUE**



ABENDUAK 20ARTE

Lore Gazteak 50 Urte: argazki eta erropen erakusketa Kulturateko klaustroan.
Ordutegia: astelehenetik larunbatera: **17:30-20:30**

ABENDUAK 12, EGUBAKOITZA

20:00_Amaia antzokian Galderak ikuskizuna **Doke** antzerki taldearen aldetik

ABENDUAK 13, ZAPATUA

20:00_Amaia antzokian Galderak ikuskizuna **Doke** antzerki taldearen aldetik

ABENDUAK 14, DONEKA

11:00_Herriko kaleetan zehar **Santamas krosa (Haurrak)**.

12:30_Herriko kaleetan zehar **Koadrilen arteko Santamas krosa**.

17:30_Biteri plazan, Baserriko parkean, **Oka jolasaren bueltan** haur eta gazteek hainbat proba egiteko aukera izango dute, **Kulkiren eskutik**.

20:00_Amaia antzokiko hallean Kontzertua: **KX Proiektua** (*Keu Agirretxea eta Xabier Iriondo*)

ABENDUAK 16, MARTITZENA

18:30_Lore Gazteak 50 Urte: argazki eta erropen erakusketaren barruan, Buruko zapia zelan jarri ikasteko saioa. Kulturateko klaustroan.

19:00_“Octubre de 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general” liburuauren aurkezpena Kulturateko Areto Nagusian.

ABENDUAK 17, EGUAZTENA

19:00_Kulturateko areto nagusian, "Euskal labea metalurgiaren historian: Arrasateko eredua", Xabier Orue-Etxebarria zientzia geologikoetan doktorearen hitzaldia.

ABENDUAK 19, EGUBAKOITZA

18:00_Santamasetako erakusleiho lehiaketaren sari banaketa

19:00_Uarkape pilotalekuan Santamas pilota txapelketako finalak.

19:30_Herrixa dantzan ekitaldia Uarkapeko Tabernan

20:00_Amaia antzokian "Das Kind" laburmetraiaren aurkezpena.
Egilea: Manu Gomez arrasatearra

ABENDUAK 20, ZAPATUA

17:00_Amaia antzokian "3 txerritxoak eta otsoa" antzezlanana Glu-glu produccionesen eskutik

18:00_Herriko plazan, dantza taldeen umeen ekitaldia, Lore Gazteak eta Txikitxu taldeen eskutik. Eguraldi txarra eginez gero, Biteri plazan izango da.

19:00_Santamasetako lehen kuadrilen arteko herri probak Biteri plazan: lokotx bilketa, Txingak, Trontza, lasterketa, saku eramatea eta soka-tira.

ABENDUAK 21, DOMEKA

10:00_Musakolako kiroldegian, gazteen mailako Santamasetako V. Tenis txapelketako finala.

11:00_Musakolako kiroldegian, helduen mailako Santamasetako V. Tenis txapelketako finala.

11:00_Etxafleruak.

11:30_Musakolako kiroldegian, Santamasetako IV. Padel txapelketako finala.

13:00_Herriko kaleetan zehar, **Egape Urnietako dantza taldearen saioa.**

18:00_Egape Urnietako dantza taldearen saioa, herriko kaleetan zehar.

19:00_Herriko plazan, **Arrasateko Erraldoi eta Kilikien konpartsa.**

19:00_Herriko plazan, **HOLAN eta MERKE txerrien aurkezpena.**

20:00 / 23:00_Herriko plazan, **Drindots taldearekin dantzaldia.**

21:30_Herriko plazan, **zezen suzkoa.**



ABENDUAK 22, ASTELEHENA

9:00_Etxafleruak.

9:30_Herriko kaleetan, **Udalaxpe txistulari taldearekin diana.**

10:00_Laubide plazan, **Ganadu feria.**

10:00_Biteri etorbidean, **Hegazti erakusketa.**

10:00_Seber Altube plazan, **Fruta eta Barazki erakusketa eta lehiaketa.**

10:30_Jokin Zaitegi Plazan eta Ganadu Feriaren inguruan, **artisan langintzen jarduera feria.**

11:00_Herriko Plazan, **Aramaixoko Sagardogileen sagardo dastaketa eta taluak.**

11:00_Herriko kaleetan, **Benta Zaharreko Mutiko Alaiak, euskal kantu kalejira herriko kaleetan zehar.**

11:30_Herriko kaleetan zehar, **Kalejira: Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea, albokariak eta Arrasateko gaiteroak.**

11:30_Iturengo Joaldunak herriko kaleetan.

11:30_Incansables txaranga herriko kaleetan.

11:30_Herriko Plazan, Arrasateko albokariaren ekitaldia.

12:00_Zaldibarren, **herri kirolak**: Ureta eta Gisasola harrijasotzaile gazteak. Aizkolariak: *abiadura, zutikakoa, luzetara eta konbinatua; trontza, lokotx bilketa, txingak eta ingudea; motozerrarekin irudiak.*

12:00_Herriko Plazan, Lore Gazteak dantza taldearen ekitaldia

13:00_Zaldibarren, Iñaki Perurenari omenaldia.

13:00_Herriko Plazan, Arrasateko Trikitilarien saioa.

13:30_Herriko Plazan, Arrostitz dantza taldearen ekitaldia.

13:45_Herriko Plazan, Txerri dantza herrikoa.

14:15_Portaloitik irtenda **kalejira herrikoa** Musakolako kiroldegiraino.

14:30_Musakolako kiroldegian, **herri bazkaria**. Txartelak salgai: *Ederra, Kajoi, Bengoa eta Amaiur tabernetan.*
Salneurria: 18€. Umeentzat tailerrak egongo dira, Txatxilipurdiren eskutik.

17:30_Uarkape pilotalekuan pilota partidak;

1. partida: *emakume palistak*: Goikoetxea-Mendizabal / Irazustabarrena-Arozena;

2. partida: *Eskuz binakakoa*: Mendizabal-Pascual / Lasa-Tolosa.

19:30_Herriko Plazan, Txerri dantza eta Larrain dantza.

20:00_Herriko Plazan, Txerri zozketa.

20:00/23:00_Herriko plazan, dantzaldia Egan taldearekin.

20:30_Amaia antzokian, **Bertso saioa**. Bertsolariak: *Andoni Egaña, Amaia Agirre, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio.* Gai jartzailea: *Manex Agirre.*
AEDk antolatuta.



ABENDUAK 23, MARTITZENA

Goiz eta arratsalde: Seber Altuben, Eskuarlean **artisanu azoka**.

20:00 Amaia Antzokian, **Gospel kontzertua** *Marlena Smalls & The Hallelujah Gospel Chorale* taldearekin.

ABENDUAK 24, EGUAZTENA

Goizez: Seber Altuben, **Eskuarlean artisanu azoka**.

11:40 Txoronpio eta Txoronpiak Munar, Uribe Auzoa, San Andres, Zigorla eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte Olentzeroren gutunak.

13:15 Txoronpio eta Txoronpia Seber Altube plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Uarkapeko Udal Pilotalekuan

18:15 Olentzeroren irteera. Ibilbidea: *San Andres (Bañez Doktorea), Maiatzak 1 plaza, Garibai, Maala, Portaloia, Erdiko kale eta Herriko Plaza*.

19:00 Herriko Plazan, Olentzeroren agurra.

ABENDUAK 27, ZAPATUA

10:00-14:00 Seber Altuben, Albaola Itsas Kultur Faktoriako San Juan baleontziaren eraikitze laneko zati bat landuko dute arotzek, opaitzur eta esku zerraz. Beothuk txalupa erakusgai izango da eta bale-ehiza zein XVI. Mendeko historiari buruzko informazioa egongo da.

Abenduak 22, 23, 24, 26 eta 27an XIV. Arrasate Hiria Xake torneoa, J.L. Iñarrako Xake taldearen lokalean.

Abenduak 26, 29 eta 30ean eskualdeko Pilotako Gabon Kopa jolastuko da,

Abenduak 26, 27 eta 28an Gabonetako Saskibaloitxo Txapelketa, Ointxek antolatuta, Iturripen.

ABENDUAK 31, EGUAZTENA

13:00 Amaia Antzokian, Arrasate Musikaleko **musika bandaren kontzertua**.

19:00 Txorbela otxotearen emanaldia kaleetan zehar.